

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ELIZALDE

ZENBATGARREN SAIOA : 7

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-15	19:30	21:45

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux, Iñaki, Juan Inazio, Jon
-------------------	--------------------------------

Kopurua: 12

16-30 urte:	Emakumeak: 3	Euskaraz: Denak
30-50 urte: 2	Gizonezkoak: 9	Elebitan:
50-65 urte: 2		
>65 urte: 8		

AKTALARIA: Jon Del Olmo

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da. Banatutako eskuorriaren letra tamaia txikia dela aipatu dute.
2	Aurrekontuak 2017	2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	2017an aurreikusten diren inbertsioak aurkeztu dira.
5	Elizaldeko lanak	- Barianteari mendia kendu eta aparkalekua egitea proposatu du bizilagun batek. Alkateak azterketa egin dela erantzun du, baina bulego teknikoak ez du planteatu ere egin aukera hori. Aztertu dena beste aldean baterian aparkatzea da. Ondoren etorriko den arazoa abiadurarena da. Baterian jartzeko espaloia txikitu behar da. Bizilagunak ikusten du ekitaldi bat dagoenean aparkatzeko arazoak daudela Elizalden. Askotan Elizaldeko Ikastetxeko zelaia erabiltzen da. Hala ere, saturatuak gauden arren, Landetxeko parkina askotan hutsik egoten da. Barianteari dugun errealitatea da zeozer gertatzen den egunean, kotxeak segituan kendu beharko ditugula. Urkabe Baita - Urkabe Baitari buruz galdetu du auzotar batek. Udal taldeak duen planteamentua da Aldundiarekin irisgarritasuna bermatzea oraingoz. Aldundiari rotondaren aukera proposatu zaio. Gai honen inguruan oposizioko taldearen presioa ere badu. Erabileran inguruan planeamenduan etxebizitzak daude aurreikusiak, eta Urkabe Baita ekipamenduari buruz. Momentu honetan udala ez da hori lantzen ari, oraingoz irisgarritasuna bermatzeko lanetan dabil. Auzotarrak aipatzen du gutxienez

		proiektua definitu beharko litzatekela. - Beste auzotar batek aipatzen du Urkabe Baitak berez ez duela baliorik eta etxe sozialak egiteko proiektu bat egiteko aukera ematen duela. Berak oraingo eraikina bota eta etxebizitzak egingo lituzke. - Urkabe Baitan egiten den garapenak aparkalekuen inguruko arazoa larritu ditzake. - Duen balorea lursailak du, erdigunean dago. Jakin behar dugu zertan erabili. Bekoplaza-plaza: - Urteak dira obra asko egiten direla kale horretan. Haserretu egiten da obrak dauden bakoitzean eta itxitzen denean. Soluzio bat eman behar zaio eta horri behin betiko soluzioa ematea eskatzen du. - Jexuxek bulego tekniko bati soluzioa eskatu zaiola aipatu du. Emandako aukeren artean erabaki behar da orain. 300000€ inguruko aurrekontua aurreikusten da. Oraingoz hormigon inpreso delakoa ikusten da aukera onena. 2017an egin nahi du udalak eta hurrengo aurrekontuetan sartu nahi da. - o Adokina: garestia eta arriskutsua. - o Hormigoia Diputazioaren ekarpena: - Diputazioaren ekarpenaren eboluzioaz galdetzen du. - 2016an eta 2017an ongi joan da. Ekarpina mantentzea espero da. - Aldundiko Sail ezberdinekin bilerak egin dira baina ingurumenekoarekin bakarrik lortu da ekarpena. - Dusi ez dela iritsi azaldu da. Diputazioa eta zuhaitzak - Oiarzunek duen aberastasuna ingurumenean du. Larre plana ongi dago, baina zuhaitzen inguruan Aldundiari esfortzu bat eskatu behar zaio. Dedikazio eta informazioa eskatzen du. - Larre planarekin udala gai izan da auzolanean kolektibo ezberdinak biltzea eta hori baloratu behar da. Hala ere, egia da zuhaitzen inguruan ez dela lanketarik egin eta kontuan hartuko da. Lehenengo sektore: - Sektore hau bultzatu nahi badugu, aurrekontuetan ere kontuan hartu behar da. Bertako produktuen alde, bertako sozioekonomia bultzatzeko laguntza ekonomikoa behar da. Ikuspuntu honetatik ez da laguntzarik jaso erakundeen aldetik. - Herri programan sartuta dago eta lehentasuna da, Lurbizi adibidez. Plaza eta peatonalizazioa - Auzotar batek askotan arratsaldetan ere autoak ibiltzen direla adierazi du eta oinezkoak arriskuan egoten dira. Azterketa bat eskatzen du. - Jexuxek erantzun dio karga deskargako aitzakiarekin trafikoa igotzen dela. Aztertuko da zer gertatzen ari den. Aspekto soziala - Gizarte ikuspuntutik ematen diren laguntzen inguruko partida eta proiektuak zein diren azaltzea nahiko luke. Aurreiritzi asko dauden esparrua da eta azaldu beharreko zerbait da. Zein laguntza dauden, zein behar dauden azaltzeko garaia da. Gardentasuna beharko litzateke gai honetan, agian ez dira auzo
--	--	--

		batzarrak horretarako lekua. - Ongizateko eta laguntzen inguruko aurrekontuan webgunean daude. Gutxi gorabehera miloi bat gastatzen da. Plantilla dezentea du, etxez etxeok kontuan hartuta. Udaletik larrialdietako laguntzak kudeatzen dira (lehengo urtean 100000€). Udaletik beharrak erantzuteko gaude eta ez diogu aurpegiari begiratzen. Udaleko langileek gainera kontrol zorrotza egiten da. Horren inguruan gainera, ongizateko mapa egiten ari da Aldundia eta badirudi udalei konpetentziak handituko zaizkiela. - Auzotar batek aipatzen du pedagogia falta dela, eta aurrekontuak webgunean jartzea ez da nahikoa. Dibulgazio lan bat eskatzen du eta ez da nahikoa egiten. - Jexuxek aipatzen du ez dakiela herritarrak prestatu dauden horrelako informazioa jasotzeko, ezta hori nahi duten ere. Oartzun herri akomodatua da eskualdean, eta zalantzan jartzen du herritarrak prest dauden hori egiteko. Partidaz partida informazioa hor dago nahi duenarentzat. Udalak eta EhBilduk ildo bat du honen inguruan, eta ez dago prest edozeinen iritziazen arabera lan ildoak aldatzeko. - Herritar batek aipatzen du Oartzungo Gizarte Zerbitzuek oso ongi funtzionatzen dutela Oarsoaldearekin alderatuz. Lekua hala ere ez da egokia. Publikoagoa izan beharko luke jendeak ikusi dezan. Beste langile bat ere beharko litzateke. Datuen inguruan, Gizarte hezkuntza kontseiluan ematen dira eta estatistikak hor daude. Ez du uste datuak zabaltzen denbora erabili behar denik, informazioa hor dago. - Jexuxek eskerrak eman dizkio eta 2017an itxaron zerrenda jaisteko langile berri baten kontratatze aurreikuspena dago. - Beste batek dio oso motel ematen direla zitak, hiru hilabetero zitak ematea ez da onargarria. - Pedagogia aipatu denean, laguntzak eskatzeko egin behar diren tramiteak azaltzeari buruz egin behar dela uste du. - Beste batek uste du alor sozialean askotan pertsonen laguntzea da. Ez da eraikinak egitea eta agian hor ez da divulgazio lanik egitea. Galdera da, Oartzunek erantzuten ditu pertsonen dituzten beharrak? - Etxegabekoen inguruan, udaltzainak eta gizarte langileak jarraipena egiten dute. Etxe hutsen egitasmoa - Alokairuan etxeak oso garesti daude eta jende gazteak ezin ditu ordaindu. Oarsoaldeko bulegoan honen inguruan zer egingo den galdetzen du. - Jaurkitzarekin adostasun batera iritsi da udala eta etxearen baldintzaren arabera 550€-ko alokairu maximoa jarri dezake. Dugun zailtasuna da etxebizitzak lortzen. Jabe guztiek jaso dute eskutitza etxean. Urkabe Baita - Europa Iparraldeko esperientziak aipatzen ditu alokairu soziala bultzatzeko egitasmo gisa. - Badaude lursailak eta eredu ezberdinak aztertuko dira. Kilikupeko etxea - Istripu bat gerta liteke. Aldapa goikoa - Aldapa goikoatik pasatzen den bidea bidegorrirantz arriskutsua
--	--	---

		dago. - Udalak erantzun dio bizilagunekin hitz egin duela. Oinezkoek kiroldegi aldera joateko goiko bidea erabili beharko luke. Hala ere bizilagunek konponduko dute. Aurrekontuak - Aurrekontuak onak direla uste du. Udalaren irudia - Desprestigio bat jasan duen arren, orain itxura ona ematen ari da. Arizmendienea - Auzotar bat pozten da mantenduko dela entzuteaz, balio izugarria duelako. - Eragile ezberdinekin landuko da. - Auzotar batek pareta botatzeko eskatzen du. Egienea - Oiartzunek izaera bat du eta pixkanaka eraikuntzak izaera hori ezabatzen ari dira. Mantendu egin beharko litzateke. - Berez balore historikorik ez duela erantzun zaio. Barruko egiturak ere ez du. Udalaren aldetik aukera berri bat ikusten da jubilatuen beharrak asetzeko eta beste beharrak asetzeko. Horren inguruan kultura, euskara eta bizilagunekin bilerak egin dira. Landetxetik denetik jaso da. Proiektua atzeratzen ari da Landetxe plazaren beharrak ere kontuan hartu behar direlako. Honek bere prozesua jarraituko du. Lehenik maketa moduko bat egingo da guztiok ikusi ahal izateko. Tabernen arazoak - Amaxkarri eta Sorgin tabernari buruzko kexak ditu. Udalak baldintza batzuk jarriko dituela hitz eman du, baina idatziz ez da erantzunik jaso. Gainera udala behartua dago berak jarritako irizpideak eta arauak betetzera. - Tabernen inguruan egia da udalak eskaera jaso duela. Erantzuna idatziz eman behar dela ikasi beharreko gauza bat da baina ez da inoiz ez erantzuteko borondatea egon. Soinuari dagokionean aspalditik egon den egoerarik onena dago, eta bi taberne limitadoreak jartzeko konpromisoa du. Udalak bere exigentziekin jarraituko du eta egun berezietan ikusiko dugu nola kudeatu. Jendea herrian geratzea nahi dugu baina deskantsatzeko eskubidea ezin da zalantzan jarri. - Auzotarrak erantzuten du nabaritu duela aldaketa txiki bat baina uste du arauak betearazi behar direla. Lehen gauzak nola ziren ez du inporta, udalak duen araudia aplikatzera behartua dago. Legarrea - Auzotar bati bereziki kezkatzen dio gai honek. Auzoan honengatik esfortzu bat egin beharko litzatekela uste du. Uste du ez duela konponketa batzuk egitearekin balio. - Udalak duen asmoa eskailerak kendu eta bi baranda jarrita irisgarritasuna hobetzea da. Horrez gain trafikoa ordenatu behar da.
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,75
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,67
Bileran erabili den metodologia	8,33
Herritarren asistentzia	3,89
Herritarren partehartzea	5,67
Saioa probetxugarria izan al da?	7,57
Egunaren egokitasuna	8,38
Orduaren egokitasuna	8,38
Lekuaren egokitasuna	8,5
Denera batatz beste	7,57

Komunikazio bideak	kop	%
Bandoa/kartelak	0	0
Whatsapp	8	61,5
Irratia eta prentsa	1	7,69
Sare sozialak	1	7,69
Ahoz-aho	0	0
Udal aldizkaria	3	23,1